


# HARREMAN-LOTURAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA ETXEGABETASUNEAN: Esku-hartzerako gakoak

## Egilea(k):

Francisco Lorenzo (UNED),  
Sebastián Mora (UP Comillas)  
Anabel Ramírez (UP Comillas)

EGIKARITZE-LABURPENA



Red  
**Faciam**

ETXEA, ETORKIZUNA ETA KOMUNITATEA

### **Ikerketa-txostena:**

Harreman-loturak eta gizarte-laguntza  
etxegabetasunean: Esku-hartzerako gakoak

Ekaina, 2024

### **Ikerketa-taldea:**

Sebastián Mora Rosado

Anabel Ramírez López



Francisco Javier de Lorenzo Gilsanz



### **Koordinazioa:**

Secretaría Técnica de FACIAM




### **Finantzaketa:**



### **Maketazioa:**

Pica Para Arriba, diseinu grafiko soziala





# · Laburpena ·

Azterlan hau FACIAM erakundeak egin du, UNEDen eta Comillaseko Unibertsitate Pontifizialaren laguntzarekin, eta honako hau aztertze sortu da: etxegabetasun-egoeran dauden pertsonak bizitzen ari diren unea ulertzeko eta gaingintzeko, eta gizarteratzearen arloko esku-hartze sozial eraginkor bat egiteko, beraiek dituzten gizarte-harremanak funtsezkoak direla uste da.

Prozesu horren helburua etxerik gabeko pertsonak dituzten harremanak ulertzea izan da, baita harreman horiek zer ekarpen egiten dieten neurtzea ere, aurre egin beharreko ahuleziak eta gizarte-laguntzatik indartu daitezkeen erresilientziarako tresnak identifikatzeko.

Neurketa horretan, harremanek pertsonari egiten dieten ekarpena bi zentzutan hartu da kontuan. Alde batetik, kapital soziala, hau da, besteekiko harremanen bidez eskuratzen dituzten baliabide materialak, informazioa eta kontaktuak, mugikortasun sozialeko prozesuetan eta egoera gaingintzeko prozesuan lagungarri izan daitezkeenak. Beste alde batetik, harreman-ondasunak. Horietan, afektuak, sinesmenak eta kidetasun-zentzuak txertatzen dira, eta horietan oinarritzen dira pertsonak, aurrera egiteko. Harreman-agregazioa esaten diegu pertsonak beren gizarte-harremanetatik lortzen dituzten kapital sozialari eta harreman-ondasunei.

FACIAM erakundearen sareak artatutako etxerik gabeko hainbat pertsonak parte hartu dute ikerketan, sare hori dagoen lurralde guztietan. Horretarako, metodologia misto bat ezarri da, inkesta bat elkarrizketekin eta eztabaida-taldeekin konbinatu duena. Inkesta horretan, zeharkako aldagaitzat hartu dira pertsonen gizarte- eta bizitegi-bazterketako egoera (ETHOS kategoriak), sexua, jatorria eta adina.

Hurrengo orrialdeetan azterketaren emaitza nagusiak eta analitika sortu diren esku-hartze sozialerako proposamenak aurkeztuko dira. Zalantzarik gabe, harreman-agregazioak ahalmen izugarria du etxerik gabeko pertsonen berreskurapen- eta gizarteratze-prozesuak indartzeko baliabide gisa, bai eta orientazio komunitarioa duten eta prebentziorako eraginkorrak diren esku-hartze politikan eta ereduetan aurrera egiteko ere. Gurekin batera gogoeta horietan murgiltzera gonbidatu nahi zaitugu.



• 01 •

Harreman sozialak,  
hondatuta badaude  
ere, ez dira  
erabat desagertu  
etxegabetasun-  
egoeran dauden  
pertsontzat.  
Aitzitik, funtsezkoak  
dira haien  
gizarteratze-  
prozesuetan.

- » Harremanen dimentsioa, azterlan honek erakusten duen bezala, etxegabetasun-egoeran daudenentzako zaurgarritasun-espazio bat da, eta zuzenean eragiten du haien gizarte-bazterketan. Bakardade-esperientziek, gizarte-babesik ezak, pertsona garrantzitsuen galerek eta migrazio-prozesuen ondoriozko distantziak, adibidez, beren egoera hobetuko duten baliabideak eskuratzeko eta aurrera egitea ahalbidetuko dieten afektuak, sinesmenak eta ondasunak errotzeko aukera oztopatzen diete.
- » Baina, muturreko ezbeharrak gorabehera, etxegabetasunak ez ditu pertsonen harremanak erabat ezabatzen. Gizarte-erakundeetan eta gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin, senideekin eta lagunekin harremanak izatea funtsezkoa da, baliabideak, afektua eta laguntza ematen dituztelako. Harreman horiek, motibaziorako eta aldaketa pertsonalerako funtsezkoak direnak, kapital sozialera eta harreman-ondasunetara heltzea ahalbidetzen dute. Horiek zeregin erabakigarria dute etxerik gabeko pertsonen identitateetan eta sinesmenetan.

## **Gizarte-harremanek inklusiorako eta gizarte-mugikortasunerako duten protagonismoari erantzuten ari gara?**

Esku-hartze sozialaren erronka kapital soziala eta pertsonen harreman-ondasunak hobetzeko ekintzak integratzea da, beste pertsona batzuekiko harreman eta lotura esanguratsuak bultzatuz. Horrek guztia badakar, adibidez, proiektuen komunitate-ikuspegia indartzea; pertsonak babesteko konexioak eta sareak erakundeen mugetatik harago zabaltzeko metodologiak berritzea; eta harreman-errealitateak diagnostikatzeko eta laguntza pertsonalizatuan txertatzeko teknikak eta tresnak gehitzea. Taldeen harreman-trebetasunak etengabe indartzea oso inportantea da.



• 02 •

Etxerik ez duten  
pertsonek, lehenik  
eta behin, oinarrizko  
premiak asetzea  
eskatzen dute,  
eta hori bereziki  
baloratzen dute.  
Hala ere, haientzat  
garrantzitsuena  
denaz ari direnean,  
harreman-ondasunei  
buruz hitz egiten dute.



- » Azterlanak agerian uzten du etxegabetasun-egoeran dauden pertsonentzat funtsezkoa dela harreman desberdinak artikulatzea; izan ere, kapital sozialerako ezinbestekoa den arren, ez da nahikoa gizarteratze prozesu arrakastatsua izateko. Afektua, balioak eta partaide izatearen sentimendua, eraldaketa pertsonal eta kolektiboko prozesuak errazten dituzten baliabideak dira.
  
- » Hala ere, esku-hartze sozialak oinarrizko premiak betetzea du ardatz, lotura moral, afektibo eta espiritualen garrantzia minimizatuz. Horrek denboran irauten duen eragin integrala muga dezake. Azterlanak erakusten duen bezala, programa eta proiektu sozialetako langile profesional eta boluntarioek kapital sozial handiagoa ematen diete etxerik gabeko pertsonen harreman-ondasunak baino.

## **Nola egin aurrera pertsonarengan oinarritutako laguntza integraleko ikuspegi batetik?**

Esku-hartze sozialaren erronka oinarrizko premiak konpontzean soilik oinarritutako larrialdi-programak gainditzea da, prestazio horien garrantzia ahaztu gabe, pertsonen harremanen dimentsioari heltzeko. Esku-hartze sozialean ziurtzat jotzen da kapital sozialera heltzea erraztea. Agian, orduan, harreman-ondasunei buruzko lana eguneroko praktikaren funtsezko elementutzat txertatu beharko da, gizarteratzeak, besteekiko harremanen bitartez, sentimenduetatik, balioak eta afektua ere sustatzea eskatzen baitu.



• 03 •

Etixerik ez duten  
pertonentzat  
errespetua eta  
konfiantza dira  
pertonen arteko  
harreman onaren  
gakoak.

- » **Errespetua eta konfiantza** funtsezkoak dira gizarte-harremanetan eta esku-hartze sozialean. Alde batetik, pertsonak hiru dimentsiotan definitzen dute errespetua: norberarekikoa, beste pertsona batzuekikoa eta haien iritziekikoa. Eta, bestalde, konfiantza funtsezkoa da gizarte-bazterketako testuinguruetan eta segurtasunik ezari eta ziurgabetasunari aurre egiteko. Horregatik, dimentsio horiek ezinbestekoak dira esku-hartze sozialean harreman produktiboak eraikitzeko.
- » Benetako baliabide bihurtzeko harreman-ondasunak sustatzeko, funtsezkoa da pertsonen protagonismoa hasiera-hasieratik aitortzea. Hala ere, azterlanak pertsonen parte hartzeari buruzko erreferentzia gutxi erakusten ditu zentroen eta proiektuen kudeaketan; profesionalen diskurtso bat da erakundeetan ezarritako praktika bat baino. .

## **Onartzen al dugu gurekin lan egiten duten pertsonak eragile autonomoak direla eta eragiteko gaitasuna dutela?**

Esku-hartze sozialaren erronka ikuspegi desinstituzionalizatzaile bat errealitate bihurtzea da, zaintza emantzipazio pertsonala lortzeko eta tarte baterako izan behar duen egoera beharrik gabe ez luzatzeko oinarria izan dadin. Horrek barne hartzen du pertsonen gaitasunak sustatu beharra, erabaki pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, eta haien esperientziak beren premiei erantzuteko sargai izatea lortzeko. Horrela, subjektibazio politikoari eta pertsonen identitate sozialari ekarpena egiteaz gain, proiektuen inpaktua hobetzen da.



• 04 •

Generoak, adinak,  
jatorriak eta  
gizarte- eta bizitegi-  
bazterketako  
egoerak eragina  
dute etxerik gabeko  
pertsonek harremanen  
kalitatean, baita  
osasunak eta bizi  
izandako indarkeria-  
esperientziek ere.

- » Harremanen kalteberatasuna bereziki kritikoa da ETHOS 1 edo 2an bizi diren pertsonentzat, 64 urte baino gehiago dituztenentzat, nazionalitate espainiarra dutenentzat, desgaitasunen bat dutenentzat edo osasun-egoera eta gogo-aldarte oso txarrean daudenentzat, puntuaziorik baxuenak baitituzte bai kapital sozialean bai harreman-ondasunetan. Bestalde, gazteek puntuazio hobekak dituzte sustraitzeari dagokionez, baina baxuagoak kapital sozialari dagokionez, eta atzerritarren erdiak baino gehiagok maila baxuak dituzte bi dimentsioetan.
- » Indarkeria jasan dutenek, bereziki emakumeek, kapital sozialaren maila handiagoa dute harreman-ondasunena baino; beharbada, horrelako zailtasunek sortzen dituzten babes-harremanengatik. Indarkeriak etxerik gabeko 2 pertsonatik bati eragiten dio, eta egoera horretan dauden 4 emakumetatik 3k pairatu dute indarkeria-motaren bat.

## **Harremanei dagokienez, erantzun egokiak ematen ari gara pertsonen premia eta eskaera desberdinei?**

Esku-hartze sozialerako erronka pertsonen gizarte-harremanak indartzea da, ikuspegi interseksionalean eta integraltasun-printzipioan oinarritutako zerbitzu pluralen bitartez. Pertsonak askotarikoak dira, eta harreman-laguntza anitzak eta denboran desberdinak behar dituzte. Beraz, pertsonengan zentratzeak beren berezitasunak eta konplexutasuna ezagutzea dakar, osatu gabeko pertsona bat ez izateko.



• 05 •

Erakunde eta  
proiektu sozialetako  
profesionalek eta  
boluntarioek zeregin  
nabarmena dute  
etxerik gabeko  
pertsonek harremanen  
dimentsioan.

- » Etixerik gabeko pertsonen kapital sozialaren erdia baino gehiago parte hartzen duten proiektu sozialetako profesional eta boluntarioek ematen dute, batez ere laguntza materiala eta informazioa. Hala ere, eragin txikiagoa dute kontaktuei eta sareei dagokienez. Gainera, afektua, balioak eta identifikazio sozialerako moduak eskaintzen dituzte. Alderdi horietan, FACIAMeko erakundeetako taldeek ekarpen nabarmen handiagoa egiten dute beste erakunde batzuekin alderatuta.
- » Laguntza hori funtsezkoa da muturreko kalteberatasun-egoeran daudenentzat, hala nola emakumeak eta ETHOS 1 eta 2 egoeran dauden pertsonak, adinekoak, lehen mailako hezkuntzarik gabeak, alargunak, nazionalitate espainiarrekoak, desgaituak eta gogo- edo osasun-egoera txarrean daudenak. Esparru horretan, eta kapital sozialari dagokionez, pertsonak aitortzen dute jasotako laguntzaren garrantzia, baina profesionalen eta boluntarioen jarrera positiboak eta jasotako tratuak gehien baloratzen dutena da, haien ekarpen ukaezin eta kualitatiboa.

## **Pertsona gisa, aldaketarako tresna izan nahi al dugu?**

Esku-hartze sozialerako erronka pertsonen indarguneetatik abiatuta laguntzea da, eta ez gabezietatik abiatuta, dauden harreman esanguratsuak berreskurapenerako tresna gisa erabiliz. Horrek barne hartzen gaitu. Horregatik, gure jakintza aldaketaren zerbitzura jarri behar dugu, baita gu geu ere, esperientzietatik ikasiz, laguntza-harremanetatik mendekotasun-harremanetara igaro ez gaitezen.



• 06 •

Senitartekoek  
etxerik gabeko  
pertsonek harreman-  
ondasunetan dute  
pisurik handiena.  
Hala ere, batzuetan  
esperientzia horiek  
oroitzapen idealizatu  
gisa agertzen dira.



- » Etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen arteko harremanetan, ama eta aita figura bereziki esanguratsuak dira, eta, horien ondoren, bikote-kideak eta seme-alabak. Kapital soziala eskuratzeko orduan pisu handirik ez badute ere (pertsonen erdiak baino gehiagok ez du haien laguntza ekonomiko edo materialik jasotzen), funtsezkoak dira ondasunen eta harremanen eremuan, bereziki ama, aita eta amonak.
- » Etxerik ez duten pertsonen laguntasuna, maitasuna, balioak, aholkuak eta talde bateko kide izatearen sentimendua jasotzen dituzte bereziki pertsona horiengandik. Hala ere, harreman horiek askotan era idealizatuan gogoratzen dira, haiekiko hurbiltasuna galdu egin delako. Ondorioz, hortik sortzen ziren afektuak, sinesmenak eta zentzumenak ere galdu egin dira.

## **Nola lagundu pertsonen beren memoria-prozesuetan, iraganarekin adiskidetzen laguntzeko eta gaur egun indartsuago bihurtzeko?**

Esku-hartze sozialaren erronka gertaera eta bizi-harreman garrantzitsuei beste esanahi bat ematea da, gertaera berriari aurre egiteko eta harremanak modu positiboan sortzeko edo berreraikitzeko. Arreta bereziz heldu behar zaio pertsonen kontakizun emozionalean eragin esanguratsua izan dezakeen edozein aldaketari (arreta-baliabide batetik bestera igarotzea, adibidez), utzikieriatzat hartu beharrean trantsiziotzat har dadin. (Auto)zainketako, narrazio autobiografikoko eta bizi-prospekzioko teknikak eta tresnak ere erabili behar dira.



• 07 •

Taldeak funtsezkoak  
dira etxerik  
gabeko pertsonen  
harremanetan.  
Hala ere, taldearen  
dimentsioa ez  
dago oso presente  
esku-hartze  
sozialari buruzko  
kontakizunetan.

- » Azterlan horrek adierazten duenez, taldeak oinarrizkoak dira etxegabetasun-egoeran dauden pertsonentzako harreman-laguntza positiboan, eta egoera berean dauden beste batzuekiko harremanak bereziki nabarmentzen dira. Esperientzia negatiboak komunak diren arren, talde horiek segurtasuna, konfiantza eta nortasun partekatua ematen dute, traizioa eta berekoikeria gorabehera.
- » Egoera berean ez dauden pertsonetikiko harremanak ere funtsezkoak dira etxegabetasun-egoeran dauden pertsonentzat. Ezin dugu ahaztu pertsona batek duen kapital soziala (haren kantitatea eta kalitatea) bere taldeen eta bere kideen mende dagoela. Beste harreman-ondasun batzuk eskaintzen dituzten taldeak ere garrantzitsuak dira.

## Aprobetxatzen ari gara pertsonekin egiten den talde-lana gizarteratze-prozesuen katalizatzaile gisa?

Esku-hartze sozialaren erronka gizarteratze-prozesuan laguntzen dituzten talde-harremanak sustatzea da, zaintzan oinarritutako ikuspegi terapeutiko baten bidez, berdinen arteko zein beste espazio bateko eta kapital sozial potentzial handiagoa duten talde batzuen arteko loturak landuz. Prozesu horiek erraztu eta haietan bitartekotza egin dezakeen figura bat *peer worker* da.



. 08 .

Etixerik gabeko  
pertsonek komunitate-  
eragileen eskutik  
jasotzen duten  
kapital sozialaren eta  
harreman-ondasunen  
ekarpena ez da oso  
esanguratsua.

- » Egoera normalizatu batean, lan-ingurunean sortutako harremanak baliabideen, informazioaren eta kontaktuen iturri dira (kapital soziala), eta bizilagunekiko loturek, berriz, identitateari, autoestimuari eta gizarte-kidetzaari laguntzen diete (harreman-ondasunak). Etxerik gabeko pertsonen eremu horietan parte hartzeko zailtasunak dituztenez, bizilagunek eta lankideek, halakorik dagoenean, bigarren mailako zeregina dute beren harremanetan.
- » Lotura komunitarioen ahultze horri (potentzialak edo errealak) etxegabetasun-egoeran dauden pertsonetikiko ingurune txarra gehitzen zaio, eta horrek kaltea, indarkeria eta diskriminazioa eragiten dizkie etengabe.

## Nola izan erakunde sozial desinstituzionalizatzaileak?

Esku-hartze sozialaren erronka erakundeen atea irekitzea da, ingurukoekin lan egitea, auzoetan jardutea, herritarrak mobilizatzea eta sentsibilizatzea, komunitateekin agente laguntzaile gisa aritzea. Hori eztabaida publikoaren puntu garrantzitsu bat izan behar da, eta administrazio publikoarekin eta gizartearekin partekatutako erronka da. Oinarri komunitarioa duten programak dira lortu behar dugun helburua, baina kontuz egin behar dugu, pertsonak babesik gabe ez uzteko. Trantsizio-prozesu bat behar dugu, non gizarte-erakundeek rol garrantzitsua izango duten eta hirugarren sektorea indartzeko politikak sortuko diren.



. 09 .

Etixerik gabeko  
pertsonek jasandako  
galerek etengabe  
elikatzen diren  
zauriak ireki dituzte.  
Loturak eta harreman  
bakoitzak ematen  
duena galtzen dira. .

- » Etxerik ez duten pertsona askok galera esanguratsuak izan dituzte beren bizitzan. Galera horiek zuzeneko lotura dute haien egungo egoerarekin, eta, aldi berean, motibazio- eta erresilientzia-iturri dira kalte-ordaina ematea lortzen dutenean.
  
- » Pertsona esanguratsuen heriotzarekin lotutako galerak dira: ama bat, aita bat, seme-alaba bat, bikote bat. Baina baita beste galera mota batzuk ere. Harreman-hausturak, bizitzaren kontakizunean garrantzitsuak diren eta hutsune bat uzten duten figurekiko urruntzea eragiten dutenak; edo espazio eta distantziaren ondoriozko galerak, bizitasun berezia dutenak, "zauria" etengabe elikatzen delako; edo gerraren izugarritasunarekin eta egiturazko indarkeriarekin zerikusia duten haustura kolektiboak, hildako guztiekin, ez beti hurbilekoak edo ezagunak, baina han utzi direnak.

## Kontziente gara pertsonen galerak eta mina betikotzean dugun paperaz?

Esku-hartze sozialaren erronka trauma berrikusteko eta doluari aurre egiteko erduetarantz igarotzea da, bere dimentsio eta konplexutasun guztietan, hierarkiak, botere-harremanak eta pertsonen instituzionalizazioa berres-ten dituzten ikuspegiak saihestuz. Horrek trauma inkontzienteari laguntzatik eta zaintzatik heldu behar zaiola esan nahi du, horretarako metodologia eta prozesu espezifikoak garatuz. Traumaren Zerbitzu Onartuen postulatuak txertatzea eta talde espezializatuen prestakuntza bultzatzea bide horretan aurrera egiteko ekintzak dira.



• 10 •

Etixerik gabe dauden  
pertsonei sinesmen  
eta praktika  
espiritualek leku  
garrantzitsua dute  
beren harremanetan.



- » Etxegabetasun-egoeran dauden pertsonen biztanleria orokorrak baino sinesmen eta erlijio-praktika handiagoak dituzte. Sinesmen horiek, gainera, pisu handia dute bizitzari eta egoerari aurre egiteko moduan, eta erlijio-filiazioak, berriz, kapital soziala eta harreman-ondasunak esku-ratzeko aukera ematen du.
- » Adibidez, erlijio-zentroak lanak edo auzotartasunak baino garrantzi handiagoa du harremanen bi eremu horietan, eta erlijio bat praktikatzen dutenek egiten ez dutenek baino maila handiagoak dituzte, bai batetik zein bestetik.

## **Nola integratu pertsonen dimentsio espirituala gizarteratze-prozesuetan, erresilientziarako duen balioa kontuan hartuta?**

Esku-hartze sozialerako erronka pertsona ardatz duen eta hura osatzen duten dimentsio guztiak barne hartzen dituen eredu bat finkatzea da, haren premiei erantzun integralak emateko eta haietako bakoitzak eskaintzen dituen indarguneak aprobetxatzeko. Horrek barne hartzen ditu erlijiotasuna eta espiritualtasuna. Alde horretatik, posible egin behar da praktika espiritualak erraztuko dituzten espazioak izatea, aniztasuna aitortu eta errespetatuko duen kulturarteko ikuspegi batetik.



Red  
**Faciam**

ETXEA, ETORKIZUNA ETA KOMUNITATEA